

HAUTESKUNDEAK

Behetik gora etorri den kanpaina, inkestek behartutako martxan

Kanpaina berezi hasi zen. Futbolaren anabasak eta lehendakari baten heriotzak markatu zuten hasierako taupada. Telebista publikoan bi egunez segidan emanaldi bereziak izan ziren; meza baten solemnitatea eta ospakizun kolektibo baten leherketa. Apaiza aldarean eta futbola-riak aldarean, zein baino zein.

Hasiera berezi horrek bukaera baldintzatuko ote duen. Hori izan da ahoz aho ibili den kontua. Eider Alkorta politologoak sumatu du kezka hori. «Athleticen garaipena politikoki erabilia izango ote zen eta kanpainan eragina izango ote zuen, kezka hor egon da. Zaila iruditzen zait hori kontrolatzea. Baina nik uste dut, zerbaitek eragina izatekotan, Ardanzen heriotzak izan dezakeela. Gustatu edo ez, Ardanza lehendakari erreferentea izan da, egun zalantzan gutxitan jartzen den koalizio gobernua berea da. Kanpainan eragiteko eta mezua bideratzeko aukera gehiago izan da Ardanzen heriotzaren inguruan nire ustez. Ardanzak legatu bat utzi du, eta hori aldarrikatzeko unea izan da neurri batean. Horregatik ikusi genituen hainbeste EAJko kargu. Bide batez, arreta eman zidan PSEko zenbat ordezkari zeuden ikusteak. Aukera ona zen bi alderdiek orain daukatena defendatzeko».

Athleticek altxatutako olatuari begira, horrek zer-nolako marea ekarriko duen aurreikusten ez dago erraza. «Foku guztiak Araban daude jarriak, hor omen dago gakoa. Bada, nire ustez, Bizkaian dago. Inkestek esaten dute EH Bildu Araban lehen indarra izan dai-

 **POLITIKA** / Amagoia MUJICA TELLERIA

Futbolaren ospakizunak itzali zirenean piztu zen kanpaina; su suabeen hasieran, borborka amaieran. Behetik gora etortzea normala da. Baina inoiz baino nabarmenago EH Bildu garaile ematen duten inkestek baldintzatu dute kanpainaren nolakotasuna.

tekeela eta Gipuzkoan ere oso indartsu egongo dela. Bizkaian koska oso handia zegoen lehen eta bigarren indarren artean, eta inkestak begiratuta, badirudi Bilduk koska jan diola EAJri. Beraz, badirudi futbolaren makro-ospakizun horrek ez duela hainbeste eragin izango».

BURUZ BURUKO LEHIA

EAJ eta EH Bildu. Badirudi hauteskundeetako partida buruz buruko bat dela. Lehia agerikoena eta biziena hori bada ere, Alkortaren ustez «lehia desberdinak» daude jokoan. «Beste buruz buruko batzuk

ere ikusten ditut, esaterako EAJren eta PPren arteko bat. EAJren azken urteetako hauteskundearen parte bat PPko boto-emaleen aldetik etorri da. Mugimendu hori gertatu da, eta PP saiatzen ari da ea horietako batzuk beren alderdira bueltatzen diren. Hor bada lehia txiki bat. PSEren eta ezker konfederala deitzen zaion horren artean ere bada lehia. Zalantzarik gabe, lehia nagusia eta historikoa Pradales eta Otxandianoren artekoa da, baina beste lehia txiki batzuk ere ari dira jokatzeko». Zenbakien aldetik agian ez dute garrantzirik izango, baina izan dezakete beren pisua. «Eserleku gehien eta boto gehien zeinek atera dituen aipatzen ari tuko gara hauteskunde gauean, 38 eserleku horiei begira. Baina ez da hori bakarrik, EH Bildu lehen indarra baldin bada botoetan ere –hori oso garrantzitsua da–, ez dakit automatikoa izango ote den EAJren eta

PSEren arteko Gobernua. Ez dut uste gau berean esango dutenik, prozesua luzeagoa izango da. EH Bilduk lehen indarra izatea lortzen badu eta inkestek ematen dituzten datuekin gertatzen bada, buruko min ederra sortuko da Sabin-Etxean, nahiz eta gero akaso hiru hilabetean akordioa egin berriz PSErekin».

BI KANPAINA

Kanpainaren lehen astea eta bigarrena desberdinak izan dira, eta tartean gertatu direnek pisua izan dute aldaketa horretan. EITBko lehen eztabaidatik (euskaraz) bigarren eztabaidara (gaztelaniaz) aldatu den bakarra ez da izan hiltunen hizkuntza. Tartean EH Bildu irabazle jotzen zuten inkestak argitaratu dira; Otxandianori “ETAren mamua” atera diote Ser Irratiko elkarrizketa batean eta Pradalesi eraso egin diote mitin batean.

Aurrez aurreko lehen eztabaidan, Pradales urduri eta Otxandiano gero eta erosoago igarri ziren pantailaren beste aldetik. «Egia da Pradales urduri ikusi dela une askotan. Sumatzen da pisu handia daukala. Orain arte, historikoki, nork jarri du zalantzan EAJ lehen indarra izango zela? Inork ere ez, ezta aurkariak ere. Barneratuta zegoen erakundeetako boterea EAJrena izango zela eta kito. Denbora gutxian hori zalantzan jarri da. Eta beste bigarren gauza bat ere gertatu da EAJrekin, jendea botoa fiskalizatzen hasi da. ‘Ez duzu ondo egin eta ez dizut botoa emango’, esan du jende askok. Eta hori oso osasungarria iruditzen zait, edozein alderditan gertatuta ere».

Irudian, Eider Alkorta politologo azpeitiarra. Gotzon ARANBURU | FOKU



«Pradalesek jarrera aldatu du aste batetik bestera, erasokorrango aritu da Otxandianorekin, Sortu aipatuz EH Bildu beharrean eta Venezuela ere aipatuz»

«Zer pentsatua ematen du janzkerak. Emakumeak, kolore argiz, zintzotasuna iradokiz. Gizonezkoak, amerikana urdinez, agintzeko gaitasuna eta seriotasuna iradokiz»

Kanpainaren bigarren as-
tean aldaketa batzuk sumatu
dira. «Kanpainaren hasierako
dinamika ikusita, ez zirudien
ETAren gaia aterako zenik, ez
dudalako hauteskunde haue-
tako klabean ikusten. Ez dut
esaten horri buruz ez denik
hitz egin behar. Baina atera da,
eta arreta eman dit Otxan-
diano nolatan ez zegoen pres-
tatuago, jakinda gaia atera zite-
keela. Arreta eman ez didana
da nola erabili duten hori al-
derdiek eta komunikabideek,
ez hainbeste Estatukoek, he-
mengoez baizik. Eraso media-
tikoa ikusita, ondorioztatu dut
inkestak egia esaten ari zirela
eta EH Bildu lehen indarra de-
la. Hor kokatzen dut eraso hori.
Horrek baldintzatu egin du bi-
garren eztabaida. Otxandianok
ez zeukan egiteko erraza, eta ez
galtzera atera zen, batzuetan
orokortasunetik arituz».

Batzuetan zalantzan jartzen
da inkestek zerbaiteko balio
ote duten. Kanpaina honetan,
EH Bildu garaile jo duten in-
kestek mugarri bat ezarri dute;
inkestean aurreko eta inkestean
ondorengo kanpaina izan da
neurri batean. «Pradalesek ja-
rrera aldatu du aste batetik
bestera, erasokorrango aritu da
Otxandianorekin, Sortu aipa-
tuz EH Bildu beharrean eta
une batean Venezuela ere ai-
patuz. Segur aski inkestean ha-
ritik etorritako aldaketa izan

Goiko irudian, belaunaldi
desberdinetako herritarrak
mitin batean.
Jaizki FONTANEDA | FOKU



da. EH Bildu lehen indarra iza-
teko arriskuaren aurrean, bel-
durraren botoa aktibatu ohi
da. ETAren mamua ateratzeak,
adibidez, ez dakit ez ote dion
mesede handiagoa egiten EAJ-
ri PSEri baino. Lehen ere iku-
siak gaude, EH Bildu lehen in-
darra izateko aukeraren
aurrean, PPko boto-emaile ba-
tzuek EAJri eman izan diote». Gaineratu duenez, «lehen al-
diz historian EAJk arriskuan
ikusten du bere posizioa, eta
erantzuten ari da, eskura di-
tuen tresna guztiekin».

PSE, ERAKUNDEETAN GOZO

«Vota al que decide. Erabakia
zurea da», dio PSEko hautagai
Eneko Anduezak karteletan
eta eskuorrietan. «PSEk bere
tokia eta helburua oso garbi
dauka; erakundeetan daukan
boterea mantentzea. Testuin-
guru honetan, Gobernuan
egoteko aukera gehien dituz-
tenak dira. Uztaileko hautes-
kundeekin alderatuta, behera-
kada izango dute, baina beren
espektatiba berriz ere Gober-
nuaren parte izatea da».

Madrilgo PSOE eta EAEko
PSE. Distantzia sumatzen da
tarteetan. «Aurrekoan Pedro
Sanchezek parte hartu zuen
mitinean, Anduezak kasik de-

rrigortu egin zuen EH Bildure-
kin ez dutela gobernatuko esa-
tera. Nafarroan ere azken ur-
teetan aldaketa interesgarria
gertatu da norabide horretan.
Madrilen bai, Nafarroan bai,
zenbait udaletxetan bai; baina
EAEn, ezinezkoa. Oraindik be-
launaldi aldaketa bat eman
behar da PSEko boto-emaileen
arte naturalago ikusteko EH
Bildurekin ere akordioak egin
daitezkeela. Baina pilota hori
ez dago alde bakarrean baka-
rrik, EH Bilduko boto-emaile
askok ere ez daukate interesik
PSErekin akordioak egiteko. Bi
indarrak harrapatuta daude;
akordio 'sozialak' egiteko ara-
zorik ez daukate, baina, beste
klabe batzuk jokoan sartzen
direnean, hurbiltze hori ezi-
nezkoa bihurtzen da».

Podemos eta Sumar alder-
diek bakoitzak bere bidetik
joatea erabaki dute, horrek or-
dezkaritza gabe geratzeko
arriskua dakarren arren. Pode-
mosen kanpainak ironiatik eta
estereotipoetatik dezente izan
du. «Txisteak egiten dira, bai-
na Podemosek kanpaina oso
ondo bideratu du. Bera da EAJ
kanporatu behar dela dioen al-
derdi bakarra. Mezua garbia
da eta profil zehatz bati zuzen-
dua dago. Arazoa da profil hori

nazkatuta dagoela beren ba-
rruko borrokekin, eta auskalo
zer egingo duen». Miren Go-
rrotxategi eta Alba Garcia fin
aritu dira jendaurrekoetan.
«Lortu dute jendearekin ko-
nektatzen duten gaiak mahai
gainean jartzea. Seguru nago
herritar asko identifikatu dire-
la haiekin uneren batean. Eta
horrek erakusten du gure tau-
la politikoan bosgarren hanka
hori existitzen dela. Hanka
sartze estrategiko izugarria
egin dute eta espazio politiko
hori umezurtz geratzeko arris-
kua dago».

AMERIKANA URDINAK

Janzkerari dagokionez, gizonez-
koetan alkandora zuriak eta
amerikana urdinak izan dira
nagusi. «Horrekin teoria oso
bat egin daiteke. Baina zer pen-
tsatua ematen du gizonezkoen
eta emakumezkoen arteko des-
berdintasunak. Emakumeak zu-
riz, zintzotasuna iradokiz. Gizo-
nezkoak amerikana urdinez,
agintzeko gaitasuna eta seriota-
suna iradokiz. Badakit marketin
eta komunikazio arauak daude-
la horren atzean, eta jende as-
korentzat garrantzitsua dela
mezu hori, baina niri, pertso-
nalki, iruditzen zait nortasuna
jan egiten diela janzkera horrek.



Ni oso arraroa naiz, baina nor-tasuna daukan jendea gusta-tzen zait eta nahiago dut hanka sartzen duen hautagaia beti hain zuzen agertzen dena baino. Hautagaiak hanka sartze-ko beldurrarekin eta presioare-kin sumatzen ditut, eta horrek uniformizazio handia ekarri du, ez nabarmentzeko nahi bat. Fal-tan sumatzen ditut garai bateko kanpaina ideologikoagoak. Desideologizazio bat sumatzen dut –bat datorrena gizartearen joerarekin–, baina faltan suma-tu dut konfrontazioa neurri ba-tean, alderdien arteko desber-dintasunak nabariago geratzea. Ulertzen dut alderdiek ez egitea, estrategikoki ulergarria irudi-tzen zait, baina nire ustez hau-tagaiak ez dira arriskatu».

ISILETIK JOAN DIREN GAIAK

Badira kanpaina isilago joan diren gaiak. «Nik, adibidez, fal-tan sumatu dut hezkuntzaren gaia. Kanpaina hezkuntzaren gainetik pasa dira hautagaiak. Feminismoarekin, berdin. De-nak oso feministak dira, baina apenas entzun den horri bu-ruz ezer. Euskararen inguruan ere, gutxi. Denak dira gai is-kanbilatsuak eta hautagaiek nahiago izan dute lokatz ho-rietan ez sartu».

HAUTESKUNDE GAUA

Eider Alkorta politologoa hau-teskunde gauetan ikusi ohi dugu euskal telebistan. Igan-deko gaua oso bizia izango ote den galdetuta, uste du «azkar amaituko dela». Alkortak ai-tortu du berak ere gustura iku-siko lukeela hauteskunde gaua sofatik, pijama jantzita, pipi-tak janez. «Baina igande gauean telebistan egon nahi dut. Gau historikoa izan daite-ke eta han egon nahi dut. Az-kenaldian oso gutxi joaten naiz telebistara, nekatuta bu-katu dudalako». Eta aitortza horri tiraka, politikaz hitz egi-ten duten emakumeen pre-sentzia publikoaren garran-tziaz jakitun den arren, testuinguru bortitza dela dio Alkortak. «Oso-oso azkarra izan behar duzu, eta neurri-tsua. Telebistan politikaz go-gor eztabaidatu izan duda-nean, gogorregia izan naizela esan didate. Aldiz, gizonezko batek intentsitate horrekin ez-tabaidatzen duenean, irmoa dela esaten da. Eta itxura fisi-koarena ere hor dago. Nik datu mordoa eraman arren eta oso prestatuta joan arren, askotan jasotzen dut nire makillajea-ren edo janzkeraren inguruko aipamenen bat».

Hauteskundeetarako panelak, kalean. Herri askotan hutsik ikusi dira panelak. Jon URBE | FOKU

BOTOA EMATEA: PAPER ZATI BAT GUTUN-AZAL BATEAN ETA, HORTIK, HAUTETSONTZIRA

Dena hain digitala den garaian, botoa ematea paper bat gutun-azal batean sartu eta hautetsontziaren zirrikitutik botatzea da. Eskuzko ekintza. Eta horregatik dauka garrantzia postontzian jasotzen den paper sortak. Alderdiek gutun-azaletan bilduta bidaltzen dizkiete herritarrei beren promesak; koloreak, letra motak, tamainak eta ertzak neurtuta. Borja Goitia diseinatzailearen betaurrekoetatik egin du errepasoa GAUR8k.

Lehen zalantza, paretek lehen adina hitz egiten ote dute kanpainen? «Garai bateko kanpainen sekulako papereztatzeak ezagutu izan ditugu, edozein pareta euskarri bat zen. Azken kanpainen dezente jaitsi da kalean kanpainaren presentzia, baina aurtengo kanpaina ez nuke esango jaitsi egin denik, aurreko kanpainen paretsu egon dela esango nuke. Paperak oraindik badauka bere garrantzia, nahiz eta garai batean besteko presentzia ez izan». Kanpainak osotasunean diseinatzen dira, euskarri guztietarako piezak pentsatuz. «Digitalean izan edo paperean izan, kanpainaren sormena bera da, mezua eta haria berdinak dira, estrategia beraren barruan dago material guztia».

Postontzian jasotako gutun-azal sorta hartzean, berehala sumatzen da lehen desberdintasuna. Alderdi denek leihodun gutun-azal amerikarra aukeratu dute, tamaina bera. Baina bada desberdintzen den gutun-azal bat, EAJrena, besteak baino handiagoa delako. «Hor hasieratik markatu nahi du EAJk desberdintasuna. Postontzian bertan, besteetatik desberdintzen saiatzen da».

Lehen begiratuan, diseinuetan ez da atrebentzia handirik sumatu, apaletik joan da kanpaina. «Orokorrean, koloreak apaletik joan dira eta ez da berrikuntza handirik izan. Hala ere, diseinu zainduak izan dira eta mezuarekin bat datozenak. Kanpaina zabaldu nahi den mezuarekin bat etorri ohi da diseinuaren proposamena. Alderdiak partida ez galtzera atera dira, eta horregatik, ez dute asko arriskatu nahi izan diseinuan».

Gasteizko Gobernurako hauteskundeak direnez, alderdi guztiek beren

lehendakarigaia aurkeztu dute propagandan, toki nagusia emanaz.

EH Bilduren kasuan, Pello Otxandiano etorkizunari begira dago argazki nagusian, urrutira begira. «Oso aurkezpen argazki ona da. Tipografiari dagokionez, nortasun handikoa erabili dute. Hauteskunder hazteko asmatu egiten dute tipografiarekin. Zeresana eman du gainera, ‘Aldaketa’ hitzaren amaierako lotura tipografikoak. Badirudi jende batek orain deskubritu dituela lotura tipografikoak eta asaldatu egin dela. Bi letren arteko lotura mota bat da, askotan erabili izan dena. Euskal alfabetoaren kutsua daukan tipografia da, horren aldaera bat dela esango nuke, oso egoki erabilia. PP alderdiak ere erabili du euskal tipografia ‘A’ hizkiaren gainean, baina oso modu traketsen». EH Bilduren diseinuaren koloreetara bueltatuz, «horiaren eta berdearen artean ibili dira berriz, baina akaso oraingoan leunago, patxada gehiago adierazteko edo».

Taldeko argazkiak ere garrantzia hartzen du. «EH Bilduk pisua eman dio taldeari diseinuaren barruan, eta emakume eta gizonezkoen presentzia orekatua aurkeztu du».

EAJren irudi nagusian Imanol Pradales ageri da, trajez jantzita, zisnelepo erdiko jertse batekin. «Iruditeriari dagokionez, EAJk azken boladako tonu minimalistari eutsi dio, garbia eta ordenatua. Zuria, gorria eta berdea, beti bezala, kolore nagusiak. Tipografia xumea erabili du, errematerik gabea. Letra larriak erabili ditu. Ia alderdi gehienek erabili dute letra larria, Sumar alderdiak izan ezik. Letra larriarekin boto-emailea interpelatu nahi da, inperatiboa da, agindua ematen duena. Eta deigarria da nola saiatu diren Imanol Pradalesen irudiari dinamismoa ematen; leloa letra etzanekin, ezkerretik eskuinera eta behetik gora. Akziozko film baten afixa ematen du, eta ekintza iradokitzen du. Lelo aldatur gero, serie baten iragarkia ematen du».

Eskuorriaren barruan Imanol Pradalesen beste argazki bat ageri da,



“formalagoa”, trajez eta gorbatarekin, aurkezpeneko argazki ofizialagoa. Eta taldeko argazkiari ere garrantzia eman dio. «Pradalesen argazkiaren atzeko partean adin eta egoera desberdinetako herritarrak ageri dira; familiaren irudi oso goraipatua eta eredu heteronormatiboa nagusi».

PSEk ez du jauzi handirik egin oraingo kanpainan. «Kanpaina bakoitza ideia berriak proposatzeko aukera bat da. PSE oso berritzailea izan da diseinuari begiratuta. Esango nuke historian zehar beren logoa gehien berritu eta aldatu duen alderdia izan dela. Baina aurtengo kanpainan oso soil aritu da, aurrekoaren ildotik. Grafikoa ez dute berritu eta oso berritzaile izatetik zaharkitu samar geratzera pasatu dira», iritzi dio Goitiak. PSEren kasuan, Eneko Anduezak dauka protagonismoa eta ez dago taldeko argazkirik. «Diseinuari begiratuta, PSEk ez du proposamen berririk egin, orain arte bezala jarraitzeko gogoia islatzen da horretan».

Podemosen kasuan, marrazkiaren eta komikiaren aldeko apustua egin du, eta hor kokatu du bere lehendakari Miren Gorrotxategi, marrazki forman. «Erabat aldatu dute

Borja Goitia diseinatzailearen begietatik errepasatu ditugu kanpainaren irudiek eta koloreek iradokitzen dituztenak.
Jon URBE | FOKU

beren diskurtso grafikoa, orain urte batzuk oso modan egon zen joera grafiko ‘rebel’ batera hurbilduz. Gutun-azalaren bi aldeetan komikia erabili dute, EAJ, PSE eta EH Bildu zirikatzeko. Nahiko ondo erabili dute, baina joera grafiko hori pixka bat zaharkituta geratu da».

Sumar alderdiaren kasuan, «tipografia soila, garbia, magenta kolorearekin. Bere afixetan ikurrinaren dekonstrukzio bat egin dute. Gustatzen zaie ikonoekin jolastea, logoan bertan ikusten da hori, batuketa baten marraren azpian ikusten da Sumar izena. Diseinu proposamen garbia da, zuzena, akaso grina pixka bat falta zaio».

PPren kasuan, gaztelaniazko «abiertos» euskarara «ireki» bezala ekarri dute. Ez da mezu bera. «Kanpainan euskal keinu bakarra erabili dute, euskal alfabetoko ‘A’ erabiliz, eta, itzulpen okerraren ondorioz, ezin izan dute erabili euskarazko leloan, ‘irekiak’ izan beharko lukeelako. Gainontzean, kostatu egiten zait horrelako alderdi garrantzitsu batek zein diskurtso grafiko pobrea daukan ulertzea. Hauteskunder hazteko gertatzen den gauza da».